




ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko urriak 21 - 1244 zenbakia

HONDAMENDIA GALDERAK EGITEKO TOKIA



dica

URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

erreforma integralak

www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27 20600 Eibar
Arratxe 9 20730 Azpeitia

*Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.*

Ekonomia modernizatuz.

Sartu etorkizuna eraikitzeus webgunean
eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garenean
gure etorkizunaren alde.



DEBABARRENEKO GAZTA AZOKA

baserriak: **urriak 22**

GOIENETXE Mutriku
Ardi gazta

MAUSITXA Elgoibar
Ardi gazta

SOSOLA Eibar
Ardi gazta ekologikoa

EGOTZA Soraluze
Ahuntz gazta

MALLEGOI Mallabia
Axeleku Behi gazta

LIZAGASAR Elgoibar
Sagar zukua / Sagardoa

**UNTZAGA
PLAZAN
10:00/14:00**

10:00etan hasita
**GAZTA
DASTAKETA**

**ARTILEAREN
KARDATU
ETA IRUTE
ERAKUSTALDIA**

11:00etan
eta 12:30ean
**GAZTAGINTZA
TAILERRAK**

AZOKA GIROTZEN
Musika Eskolako
Trikitilariak eta
LEKIM antzerki taldea



Jarraitu gaitzazu!



Martin Azpilikuetak komiki-tailerra eskainiko du azaroaren 9tik 22ra. Klaseak ordubetekoak izango dira, 15 egunetik behin, eta bi talde antolatuko dira (LH-ko 4. mailatik DBH-ko 1. mailara; eta 16 urtetik gorakoak). Izena emateko epea urriaren 21ean amaituko da eta Udalaren webgunean aurkitu daitekeen formulario baten bitartez egin daiteke.



Armagintzaren Museoa San Andres elizako organoaren zaharberritzeari buruzko erakusketa jasotzen dihardu abenduaren 11ra arte. Gainera, bisita gidatuak egingo da urriaren 27an, eta organoa bisitatzeko aukera ere egongo da 24an.

Sergio del Campo organogileak San Andres elizako organoa piezaz pieza zaharberritzen dihardu 2021. urteko ekainaz geroztik. Kalkuluen arabera, 2023an amaituko dituzte lanak.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekarria
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Ainhoa Resano
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Metabertsoa definitzen ari da oraindik. Konparazio bat: aurreneko telefono eramangarriak maleta txiki batean eramaten zituzten. Ba metabertsoaren ibilbidean garai horretan gaude; ematen du amaitutako film batez hitz egiten dela, baina gidoia idazteko dago. Gaur egungo betaurrekoak handiegiak dira, etorkizunean ikusmenarentzat erabiltzen direnen tamainako betaurreko batzuk egongo dira, eta horiek ordezkatuko dute telefonoa eta ordenagailua. Globalizazioa orokorrean porrota izan da. Metabertsoa toki aparta izango da ekosistema aberatsak sortzeko. Zoragarria izan daiteke euskarazko komunikabideentzat: metabertsoko taberna batean hitz egin ahalko da egunkariko irakurleekin.

ECEQUIEL BARRIKART, Youmediako zuzendaria

Independentzia nahi dugula esaten dugu. Geure nahi eta ametsak irudikatzen ditugu etorkizun idilikoan. Alta, zer galtzeko prest gaude independentzia irabazteko? Hiru, sei hilabeteko soldata? Oporraldi exotikoak hamar urtean edo bizirik gauden bitartean? Bizi osoan irabazi eta merezitako erretiro duina? Non dago gure muga? Guk ez dakigu, baina gure arerio politikoez, bai. Ederki ezagutzen gaitu. Badaki oso eroso eta lasai bizi garela. Errioxa eta Extremaduraren pare. Eta horrekin jokutzen du.

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OKERKERIXA → Bihurrikaria. “Negargarrizko okerkerixia egin deskue umiak”.

OKERRUNA → Gauza bat okertuta dagoen atala edo tartea. “Kaiñoi honek hamentxe dauka okerrunia”..

1971-72

Auto istripua Arrateko bidean

Plazaola estudioko argazki honetan automobilekin izandako istripua ageri da. Irudian errepidetik irtendako autoa eta gidaria kasko eta guzti.



Farmaziak

BARIXAKUA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 23
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 24
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 25
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 27
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 28
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ BETI, 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Egun Bat (Jokozaleak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Amaia Zubiaurre Arriaga.** 58 urte. 2022-10-11.
- **Arrate Gisasola Barrenetxea.** 90 urte. 2022-10-13.
- **Maricarmen Uriarte Etxaniz.** 83 urte. 2022-10-14.
- **Carmen de los Mozos Cavia.** 93 urte. 2022-10-14.
- **Arrate Aranegi Larrañaga.** 85 urte. 2022-10-16.
- **Pedro Laureano Llamas Perales.** 65 urte. 2022-10-17.
- **Elixabete Boneta Garcia.** 61 urte. 2022-10-17.
- **Jose Antonio Iñarrairaegi Gomez.** 92 urte. 2022-10-17.
- **Juanita Vives Zabaleta.** 88 urte. 2022-10-17.

Jaiotakoak

- **Jon Rodriguez Padilla.** 2022-09-30.
- **Gari Garteiz Ugalde.** 2022-10-02.
- **Ibai Garteiz Ugalde.** 2022-10-02.
- **Irati Lopez Ugarte.** 2022-10-03.
- **Iñaki Lopez Ugarte.** 2022-10-03.
- **Unai Dalama Hernandez.** 2022-10-07.



Herriko merkataritzaren eskaintza bateratua emateko direktorio berria

Udalak saltokien eta zerbitzuen direktorio orokor berri baten sorrera jarri du abian, www.erosieibarren.eus webgunean integratuko den gida baten bidez. Direktorio horretan Eibarko mapa bistaratu ahal izango da, establezimenduen kokapena sektoreka antolatuta. Bertan, erabiltzaile bakoitzak erraz kontsultatu ahal izango ditu atxikitako establezimendu bakoitzaren informazioa eta irudiak. Horrela, www.erosieibarren.eus erreferentziarako webgunea izatea lortu nahi dute, hiriko merkatarit-

tzari lotuta egiten diren ekintza guztietarako.

Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) bultzatutako ekimen hori gauzatzeko, merkatariei gutunak bidaltzen hasi dira, ekimenarekin bat egin eta merkataritza-gida berri horretan parte hartzera gonbidatuz

Interesa duten establezimenduek informazio gehiago jaso dezakete ekonomia@eibar.eus (Ainhua Romero) edo kaixo@erosieibarren.eus helbide elektronikoetara idatzita.

Bizilagunak ekimeneko bazkarietarako izen-ematea zabalik dago

Aurten berriz ere egingo dira Bizilagunak bazkariak Eibarren. Azaroaren 20an izango dira, Udalak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatuta. Proiektuaren arduradunek diotenez, “bi familia elkartzen dira bazkari baten bueltan, bata autoktonoa eta bestea errefuxiatu edo migrantea. Elkartzeko hau dinamizatzaile ba-

ten laguntzarekin gertatzen da”. Dinamizatzaile, gonbidatu zein gonbidatzaile moduan hartu daiteke parte Bizilagunak proiektuan.

Bazkarietarako izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko immigrazioa@eibar.eus / ongietorri@etakitto.eus helbideetara idatzi daiteke.

Langabetuei laneratzea errazteko programa abiatu du Armeria Eskola Elkarteak

Armeria Eskola Elkarteak, Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak lagunduta, langabetuei zuzendutako programa abiatu du, laneratzea errazteko. Helburua parte-hartzaileen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea da, lan-merkatuan sartzen laguntzeko trebetasunak emanez. Antolatzaileen berbetan, “parte-hartzaileen eskura jarriko da inguruko enpresetara hurbiltzeko aukera”. Hainbat fase dauzka: lan-orientazioa (banakakoa+taldekoa); garapen pertsonala; enpresetara hurbiltzea; eta laneratzea. Azaroa eta abenduan eskainiko da, dohainik. Izena emateko epea azaroaren 2ra artekoa da. Informazio gehiagorako edo izena emateko [943 20 32 44](tel:943203244) telefonora deitu edo elkartea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke (Ainara Arrate).



Egurenko afarian emango dira OnEkin Sariak

Ekinguneren OnEkin Sariak urriaren 27ko afarian aukeratuko dira. Errebal Plazan izango da eta 10. urteurrena ere ospatuko dute. Joan nahi duenak urriaren 25a baino lehen eman beharko du izena. Argibide guztiak Interneten (ekingune.com) daude.



Debarreneko Gazta Azoka egingo da bihar Untzagan

Eibarko Udalak eta Debemen Debarreneko Landa Garapen Elkartek antolatuta, bihar goizean Debarreneko Gazta Azoka egingo da Untzagan, 10:00etatik 14:00ak bitartean. Beste batzuetan eginda koaren bidetik, gure eskualdeko gaztagileen produktuak eskainiko dituzte bertan, probatu eta erosi nahi dutenentzat. Bost gaztagilek hartuko dute parte: Mutrikuko Goienetxe (ardi gazta), Elgoibar-

ko Mausitxa (ardi gazta), Eibarko Sosola (ardi gazta ekologikoa), Soraluzeko Egotza (ahuntz gazta) eta Mallabiko Mallegoi (Axeleku behi gazta). Beraiekin batera, Elgoibarko Lizagasarrek sagar zukua eta sagardoa ipiniko ditu salgai.

Hiru dira ardi-gazta ekoizten duten debarrendarrak: Mutrikuko Goienetxe baserriko Beñat Egaña, Elgoibarko Mausitxa baserriko Iñaki Ansola eta Eibarko

Sosola baserriko Enrike Gisasola. Mandiola auzoko baserri honetan egiten duten ardi-gazta ekologikoa da eta, horrez gain, ogia ere egiten dute. Eta Elgoibarko Mausitxarenak badu berezitasun bat: Idiazabal jatorri izendapena. Azoka zabaldu eta, berehala, gazta dastaketa hasiko da eta artilearen kardatu eta irutea bertatik bertara ezagutzeko erakustaldia prestatu dute. Gainera, 11:00etan eta 12:30ean gaztagintza tailerrak eskainiko dituzte eta, azoka girotzen, Musika Eskolako trikitilariak eta Lekim Animazioak taldekoak arituko dira.



**Mariasun
Penedo Darriba**

2022/10/09

"Gure bihotzean
biziko zara.
Ez zaitugu ahaztuko"

MILESKER
une latz hauetan gurekin
egon zareten gustoi.

- ZURE FAMILIA -





**Ignacio
Zamacola Zubia**

1. URTEURRENA
2021/10/23

"Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.
Gure bihotzetan beti
maite izango zaitugu"

- ETXEOAK -





Perutik ailegatu berri, atsedean barik dabilta batetik bestera, gure herrialdeari buruz ahal duten guztia ikasi nahiean. SILBIA

Peruko emakumeei ahotsa emateko proiektuei Eibartik laguntzen

Egoazia Gobernu Kanpoko Erakundeak 20 urtetik gora daramatza nazioarteko garapenerako proiektuak Peru lantzen, bertako elkarte ezberdinekin elkarlanean. Piura eskualdetik bisitan etorri dira proiektu horietako biren ordezkariak, gure herrialdean egiten diren hainbat ekimen bertatik bertara ezagutzera, eta beraien herrietan egiten ari diren lanaren berri eman digute.

Alto Piura izeneko eskualdetik etorri diren Jackeline Lachira, Rosa del Pilar Laban Gimenez, Mario Rufino Trelles eta Estela Guerrero Salvadorrekin bildu gara aste honetan, Egoaziaren egoitzan, Eibarko GKK-aren laguntzarekin garatzen ari diren proiektuei buruz gehiago jakiteko. Lierni Fernandez Egoaziako proiektuen arduradunak aurreratu bezala, berriki martxan ipini dituzten bi proiektu horiek emakumeen ahalduztea daukate helburu gisa; baina, au-

Emakumeen oinarriko eskubideak aitortzeko eta erabakiak hartzen diren tokietan beraien presentzia izateko gogotik ari dira lanean

rretik landutako beste batzuekin alderatuz gero, hainbat berezitasun dauzkate.

Sexu askatasuna eta ugalketa eskubidea

Jackeline Lachirak zuzentzen duenaren kasuan, lurraldean bizi diren emakumeen eskubide sexualak eta ugalketakoak bete daitezzen ari dira lanean. Kontatu digunez, landa eremu horretan bizi direnen pobrezia-aren arazoari bertako bizimodu eta ohiturei lotuta agertzen diren beste arazo batzuk gehitu behar zaizkie: “Hasteko, emakume gehienek eeskubide horiek dituztenik ere ez dakite. Hori dela eta, komunitateetako erakundeekin batera hori aldatzeko lanean ari gara, eskubide horiek dituztela jabetu daitezzen. Horrez gain, haurdunaldian zehar zein erditzerako orduan jasotzen duten arreta hobetzeko ahalegina egiten ari gara eta, horrekin batera, prebentzioaren arloa ere lantzen dihardugu”. Matxismoa eta beste faktore batzuk tartean, sendagilearengana joatea asko kostatzen zaie oraindik ere, eta hori da aldatu nahi dutena. Gainera, nerabeen artean nahi bariko haurdunaldi asko gertatzen dira: “Gu bizi garen tokian bakarrik, 11 eta 14 urte bitarteko 53 neska daude haurdun”. Gauzak horrela, heziketa sexuala ezinbestekoa dela nabarmendu du.

Beste bi emakumeen kasuan, feminismitik ari dira emakume zein gizonekin lanean, orain arte ahotsik izan ez duten emakumeei Udaletan zein erabakitzeke ahalmena duten beste erakundeetan entzun diezaieten. Eta hori lortzeko asmoarekin ari da lanean Mario Rufino baita ere. Bere kasuan, edateko uraren arduradun elkarteetan emakumeei tokia egiteko lanean dihardute, hor-tik abiatuta geroz eta indar gehiago izan dezaten aginte organuetan.



Domekan Irure-Ilordo inguruan zuhaitzak landatzera joateko deia egin dute

Eibarko Baso Biziak elkarteak zuhaitz landaketa antolatu du domekarako, Elgoibarko Baso Biziak eta Soralueko Baso Biziak elkarteekin batera. Ekimena Irure-Ilordo inguruan egingo da (Eibar eta Soralue artean). Adierazi digutenez, "Soralue eta Eibar artean ia 14 hektarea eskuratu ditugu lur lagapenaren bidez. Lurguaia Fundazioarekin lortutako akordioari esker, aurrerantzean landa-

ketak eta bestelako balio pedagogikoak edota teknikoak dituzten ekimenak egingo ditugu elkarrekin". Horrez gain, Kutxa Fundazioaren babesarekin daukate. Boluntarioak 09:30ean daude deituta Soralueko poligonoko zubian. Bat egiteko aurretik izena eman behar da, soraluekobasobiziak@gmail.com, eibarkobasobiziak@gmail.com edo infolurguaia@gmail.com helbideetan.

Umeendako irteera eta jolasak antolatu ditu Gazteen Gurutze Gorriak

Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriak 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat irteera eta jolasak antolatuko ditu biharko. Torrekuko anbulatorio zaharrean elkartuko dira, 11:00etan, handik Arratera igotzeko. Bertan hainbat jolas egingo dituzte, 17:00ak arte. Hamaitakoa eta bazkaltzeko ogitartekoa eraman beharko dute umeek eta, euria egingez gero, Torrekuan geratuko dira.



AUTUAN

75 URTE DITUZTENEN JAIA AZAROAREN 17an

75 urte betetzen dituztenek azaroaren 17an ospatuko dute beraien jaia. Untzagan elkartuko dira, 12:00etan, argazkia egin eta, jarraian, Ipuruara joango dira, foball zelaia inauguratu zutela 75 urte bete direla eta, hori gogoratzera. Jarraian, luntxa eskainiko diete Ipuru tabernan eta bazkaria, berriz, Eibarko Bizikleta Plazan dagoen Kasinoan izango da, musika eta guzti. Izena emateko 75 euro sartu behar dira Kutxabaneko ES53 2095 5035 0310 6557 8022 kontu korronte zenbakian, izen-abizenak ipinita.

1951n JAIOTAKOEN OSPAKIZUNA

Azaroaren 19an ospatuko dute beraien jaia 1951n jaiotakoek. Untzagan elkartuko dira, 13:00ean, argazkia egin eta zapiak banatzeko. Ondoren, piskolabisa izango dute O'Jays tabernan eta handik Unzaga Plaza hotelera joango dira, han bazkaltzeko. Parte hartzeko 80 euro sartu behar dira Kutxabanken, ES40 2095 5035 01 9121623421 kontuan, izen-abizenak jarrita. Azken eguna urriaren 30a izango da.



1962ko KINTOEN JAIA BIHAR

Bihar ospatuko dute beraien jaia 1962ko kintoek, honako planarekin: 12:45ean udaletxeko arkupeetan elkartuko dira; 13:10ean talde argazkia egingo dute; 13:30ean aperitiboa, Kultun; 14:15ean aperitiboa, Kontenten; 14:45ean bazkaria, Arkupen; eta 21:00etan dantza, pintxo eta edariak, Koskorren.

26 ikaslek hasi dituzte klaseak Esperientzia Eskolan

Aurreko barixakuan Armeria Eskolak hartu zuen ekitaldiarekin abiatu zituzten Debabarreneko Esperientzia Eskolaren 18. promozioa eta Ikasten elkartearen ikastaroak. Gure eskualdeko 26 ikaslek hasi dute kurtso berria. Horietako 16 eibartarrak dira. Eta, izena aurrekoetan baino gizon gehiagok, seik eman badute ere, eskolan emakumeak izango dira nagusi beste behin.



Kurtsoari hasiera emateko ekitaldian ikasle berriei harrera egin zitzaion eta, jarraian, ederto pasatu zuten Maite Lorenzo antzezleak eskaini zuen umorezko bazarriketarekin. Ekitaldia agurtzeko, berriz, joandako guztien artean Ikasten elkarteak emandako hainbat liburu zozketatu zituzten. Horren ostean Untzagako jubilatutxerak joan ziren, klaseetarako erabiliko duten gela ikustera. Eskolako ikasleak astean hiru egunetan joaten dira klasera: martitzen eta eguaztenetan Untzagako jubilatutxerak, 09:30etik 12:30era; eta, eguaztenetan, Armeria Eskolara, 10:00etatik 12:00etara.

Orain dela hemeretzi urte ekin zion bere bideari Debabarreneko Esperientzia Eskolak eta, harrezkeror, 350 ikasle baino gehiago igaro dira bertatik. Parte hartu ahal izateko ez da baldintza berezirik eskatzen: 50 urtetik gora izatea eta, jakina, gauza berriak ikasteko gogoia. Bestalde, eskolarako izena ematearekin batera, Ikasten elkarteko kide izatera pasatzen dira ikasle guztiak, ikasturte hasierako ekitaldian Patxi Mutiloa elkarteko presidentek gogora ekarri zuenez. Izan ere, ikasleek eta ikasle-ohiek osatzen duten Ikasten elkarteak hamaika jarduera antolatzen ditu, parte hartu nahi duen edozeinentzat: ibilaldiak, joskintza eta puntua egiteko klaseak, luzaketak egiteko saioak, Kaleetan Kantuz abesbatzaren entseguak, antzerkia egiteko tailerrak, era guztietako gaiak lantzeko hitzaldiak adituekin... Horiei buruzko informazio zehatza Internet bidez ematen du elkarteak, www.ikasten.info blogean.





"Lehen famosua zan
San Romango pagadixa,
danak haraxe; beti emoten.
Oin ez dau emoten,
kanbixau egin da, piñuak
be tartian...trukauta dago".
Jose Kareagak ere marraztu
zituen hango pagoak,
1972. urtean.

Perretxiko kontuak.
Zeintzuk diren onenak,
lehen non aurkitzen zituen,
etab.

Perretxiko izenak

Roberto Isasi Jayo *Cayón*
(1935 – 2009)



Urkizun jaio zen 1935ean. Ehiztari eta arrantzale amorratua; perretxikotarako afizioa ere ume-umetatik izan zuen, aitarekin hasi eta ondoren bere kabuz lantzen joan zena. Naturarekin zerikusia duten gaiak oso ondo ezagutzen zituen eta bere azalpenak ezinbesteko izan ziren Eibarren egindako hainbat bilketa-lanetan, bereziki "Eibarko Hiztegi Etnografikoan".

Roberto Isasiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Zuek zeintzuk batzen dozuez?] (...) Urritzak, urdiñak, saltsa-perretxikuak ta horretxek! Azuliñak noizik behiñian, azulinarixo batzuk ta horretxek. Onguak eta... Horretxek. Neguko susa batzuk... horretxek! Ba... askorik ez, baiña hartzen dana ona! [Ta gozuen a zein da danetatik?] Ongua! Ongua ta urritxa ta urdiña onenak. Ta robilloia be asko gustatzen zait. Askok! Nik haxe jaten dot bakarrik, e! Nik besterik ez dot jaten! [Ongorik...] Ez! Nik ez! Batu, ahal dittuten danak, baiña jan ez! Pentsatu be ez! Useiñak be atzerakadia! Tabernan edo nun-nun, etxeren baten, ipiñi... jo, sentitzen dot eta... Ez dot nahi! Ez dot nahi! Ajji! [Kuriosua...] Ez dot nahi. Useiña. Igarri, berriz, zer dauen... bueno! Onguan useiña... Ez da, nere gustokua ez da! Larrei janda edo, larrei janda edo... aspertuta! Lehen jaten nittuan, baiña oin ez. Zetako danik be ez (...).

Kokedamak egin zituzten martitzenean

Dozena bat lagunek jardun dute aste honetan...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako kokedama ikastaroan. Japoniatik datorren teknika artistiko honekin landarea lurra eta goroldioarekin estali eta babesten da, eta ez du lorontzirik behar izaten. Akadama izeneko lur berezia, goroldioa, landareak, pita eta ura erabiliz, eta, trebetasun apur batekin, kokedama ederrak egin zituzten. Eta tailerra biribiltzeko, makramezko lorontzi bereziak egin zituzten kokedamak zintzilikatzeko.

Hurrengo astean, landareei buruzko bigarren saioan, terrarioak egingo dituzte. Kristalezko arrainontziak barrutik apainduko dituzte kaktusak, harritxoak eta apaingarriak erabilita.



Japoniatik datorren teknika artistikoa da kokedama



Hasi dira Harixa Emoten tertuliak

Harixa Emoten euskarazko irakurketa-klubak joan den hastean ekin zion ikasturteari. "Errealitateak" liburua aztertu zuten tertulian, Ane Labaka egileetako batekin. Aurten, gainera, dinamizatzaile berria du klubak, Ainhoa Aldazabalek hartu baitu Antxon Narbaizaren lekukoa. Hurrengo irakurriko duten liburua Uxue Apaolazaren "Bihurguneko nasa" izango da eta tertulia azaroaren 22an egingo dute.



Barixakuak Jolasian Torrekuan

Aurreko barixakuan Txaltxa Ze-laiko parkean egon ondoren, gaur Torrekuan egingo dira Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolas dibertigarriak antolatuko dira doan, arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara. Eta hurrengo barixakuan, urriak 28, Urkizuko parkeak hartuko ditu jolasak.

Eibarko Udalak eta Debegesak martxan jarritako HELDU! programan zortzi ekintzaile ari dira euren enpresak sortzeko lehen pausoak ematen. Helburua da Eibarren enpresa-jarduera berriak sortzea. Oihana Astigarraga Degesako Enpresa eta Berrikuntza arloko teknikaria da eta proiektuei buruzko xehetasunak azaldu dizkigu.



OIHANA ASTIGARRAGA • DEBEGESAKO Enpresa eta Berrikuntza teknikaria

“Ekintzaile batek bidean hasteko behar dituen alde garrantzitsuenak lantzen ditugu”

Heldu! programan hautatutako sei proiektuek formakuntzaren lehen fasea hasi dute. Kontaiguzu, gainetik bada ere, nolako negozio-ideiak diren.

Sei ideia dituzten 8 ekintzaile aukeratu ditugu. Oso ideia desberdinak dira: Ingeniariz osatutako kontsultora bat; ingurumenarekin eta, zehazki, plagen edo izurriteen arazoekin lotutako ideia bat; industriari lotutako bi proiektu, bata armagintzan oinarritutakoa eta bestea hidrogenoaren bidezko errefrigerazioan; magia munduan urte asko daramatzen ekintzaile baten negozio-idea. Mago horrek sormen hori enpresetara zuzendu nahi du, eduki kreatiboen bidez jendearen atentzioa erakartzeko moduak garatuz; eta, azkenik, bizimodu osasuntsuarekin zerikusia daukan proiektu bat. Ikusten denez, denetik daukagu.

Zeintzuk izan dira irizpideak ideia horiek aukeratzeko?

Interes-lerro batzuk Eibarko Udalak jarri zituen eta horren arabera egin da hautaketa. Azken batean, herriari eta bailarari aberastasuna emango dioten ideiak bilatu dira.

Zer nolako edukiak eskaintzen zaizkie formakuntza-saiotetan? Eta zein da aukeratutako metodologia?

Ekintzaile izatera iristeko ekintzaile batek bidean behar dituen puntu inportanteenak diseinatu genituen eta zortzi saiotan banatu: negozio-ideiaren definizioa; prototipatua eta baliozkotzea; estrategia definitzea; plan finantzarioa; marketin-plana eta salmentak; taldeak eta pertsonak; lege alderdiak eta komunikazioa. Pertsonen eta taldearen garrantzia asko azpimarratzen zaie. Ezinbestekoa da taldeko kideek bisio bera izatea proiektuak aurrera egiteko. Komunikazioa eta aspektu legalak ere oso garrantzitsuak dira enpresa bat



sortzerakoan, eta arlo horiek ere lantzen dira. Modulu bakoitzean formakuntza espezializatua eskaintzen da eta saiatu gara gertuko adituak ekartzen. Taldean egin diren formakuntza-saiotz gain banakako aholkularitza ere eskaintzen dugu, gai zehatzetan laguntzeko.

Zer espero duzue lortzea hiru hilabete hauetan?

Enpresa bat sortzea oso gogorra da eta bultzada bat behar duen prozesua da. Gure helburua da zortzi ekintzaile prestatzea eta beharrezko ezagutzak eskaintzea ideia horiekin aurrera egin nahi ote duten erabaki dezaten. Bizitzako fase honetan ez bada, etorkizunean erremintak izango dituzte euren negozio-ideiak garatzeko.



Paradisoan. PEDROARRIOLA



Deporrek antolatutako Jardunaldi Mikologikoek jarraipen handia dute eibartarron artean.

Perretxikoak esku-eskura jarriko dizkigu asteburuak

Klub Deportiboko Mendi Batzordekoek, ohiko bidetik, Jardunaldi Mikologikoak berreskuratuko dituzte aurten. Oraingokoa 22. edizioa izango da, gaurko hitzaldiarekin hasi eta domekako dastaketa eta erakustaldiarekin amaituko dena, bitartean zapatuan hainbat perretxiko mota bildu eta sailkatzeko ekitaldiek osatuta.

Biharko eguna berezia izango da, urte guztian halakorik ez direlako egiten. Deporrek mendibatzordekoek mendi-irteera antolatu dute, herriko ikastetxeetako ikasleak protagonista bihurtuz, zapatu goiza perretxikoak biltzeko aprobetxatuz. Mendi batzordeko Mari Fran Aranak dioen bezala, "espezie bakoitzetik hiru pieza hartzen ditugu horrelakoetan, eta ez gara 50 espezetik pasatzen". Lizarrusti edo Marietara joango dira eta "aurrereko urteetan izandako arrakasta bera" lortuta espero dute bueltatzea. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera goizean bildutako guztia sailkatu-

ko dute Deporren bertan, beti ere Aranzadi Zientzia Elkarteko kideen laguntzarekin.

Aurrekoa oinarri dutela, hurrengo egunean, domekan, perretxikoen erakusketak hartuko du egitarauaren lekukoa Toribio Etxabarria kalean. "Eguraldiak ez

Gaur hitzaldia Deporren, bihar bilketa eta etzi erakusketa eta dastaketa kalean

badigu besterik esaten behintzat, euriak erakusketa hori udaletzeko arkupeetara eramango lukeelako". Perretxikoak euren informazio guztiarekin kaleratzeaz aparte, "dastaketa eta salmentarako tartea ere izango da, Mikel Lasaren eskutik" 10:30etik 14:00ak arte.

Gaur hitzaldia 19:00etan

Jardunaldiekin hasteko, gaur 19:00etan, Deporren bertan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Antton Melendezek hitzaldia eskainiko du. "Mikologiako oinarriko kontzeptuak, sailkapen nagusiak eta, perretxikoak identifikatzean, izan ditza-kegun akats nagusienak" argituko ditu bertan. Melendezen helburua da zaleei baliabideak eskaintzea "bilketa dibertigarri, jasangarri eta segurua egiteko". Melendezek dioenez, "akats ohikoena gibelurdina eta amanita faloidesa nahastetik dator. Askotan jasotzen dugun guztia jaten dugulako". Aurten orain arte perretxiko askorik ez dela izan dio: "Nafarroako Ultzama izango dugu zonalderik aberatsena inguruan".



IMANOL MAGRO

Iberdrolak mila euro ordaintzen baditu...

Azken bi asteetan behargin askorekin hitz egitea egokitu zait. Berria egunkarian hainbat lan gatazka jorratu ditugu, eta halakoetan beharginen baldintzak azaleratzea funtsezko informazioa da. Kazetaritza irakatsi zidanak zioen beti galdetu behar dela diruaren inguruan: Zenbat balio du? Zenbat ordaintzen dute? Nork irabazten du?... eta hala egin dut nik.

Hona hemen gaur egungo hiru soldata eredu erreal, zifrekin. Baga, Amazon erraldoi teknologikoak Bizkaian duen biltegiko langileek 1.040 euroko hamabost soldata jasotzen dituzte urtean. Biga, besteak beste SOS Deiaken, Jaurlaritzaren trafiko zerbitzuaren, Iberdrolaren, Kutxabanken eta Lagun Aroren telefono bidezko arreta ematen duten langileek mila euroko hamabi ordainketa jasotzen dituzte (12.150 euro urtean). Eta higa, SPRI, URA edota URA agentzia publikoen bulegoak garbitzen dituzten garbitzaileek lau orduko lanaldia dute eta 600 euro irabazten dituzte. Sinesten ez duenak lan hitzarmenak aise aurkitu ditzake Interneten.

Logistika edo telezerbitzu bezalako izen ponposoen azpian diharduten beharginak dira, irabazi handiko enpresentzat ari direnak asko, edota sailburu eta sailburuordeen bulegoak garbitzen dituzten emakumeak. XXI. mendeko lanpostuak dira, gero eta zabalduagoak, baina baldintzak ikusi baino ez dago atzerapausoa direla ikusteko. Ikerketek argi diote gizarte arrakalak gero handiagoak direla eta langileen erosketa ahalmenak behera egin duela azken hamar urteetan. Alegia, lan egiteak ez du pobrea izaten eragozten, ezta paparrean izen handia emanda ere.

Krisia konpondu nahi badugu, soldatetatik hasi behar da. Laguntza, bonu eta adabaki guztiak ondo daude, baina soldatetara jo behar da, hura da aberastasuna sozializatzeko modu eraginkorrena. Goian izendatutako enpresa eta erakundeek baldintzak hobetzeko aukera dute, eta herri itunak bili bolo dabiltzan honetan hori eragiteko akordio bat behar da. Izan ere, Iberdrolak mila euro ordain ditzala zilegi bada, malo.

"Krisia konpondu nahi badugu, soldatetatik hasi behar da; hura da aberastasuna sozializatzeko modu eraginkorrenena"

100 urte eta gero berria balitz bezala


BIDEOA



San Andres elizako organoak 100 urte bete ditu aurten eta, zaharberritze prozesuaren ondoren, aurpegi berriztuarekin ospatuko du mendeurrena. Hans Melcher organogile alemaniarrek sortutako organoa parrokiak duen altxorretako bat da eta bere sorkuntza onenetako bat gainera. Orain, bere lana errespetatuz, itxura berritua hartuko du hilabete batzuk barru amaituko diren zaharberritze lanekin.

Jesus Guridi maisuak 1922ko maiatzaren 25ean inauguratu zuen San Andres elizako organoa 'Missa in honorem SS. Sindonis D.N.J.C' joz. 'Melcher, Mar y Cia' organo-fabrikatzaileak sortu zuen organoa, Hans Melcherrek Ramon Mar organogilearekin sortutako enpresak, eta San Andres elizarako apropos egina dago, bertako espaziora eta akustikara moldatuta. "Ondare Kultural Egokia" izendatu duten organoa dugu. Hau da, bere balio kultural, historiko eta artistikoagatik estatuak bereziki babesten duen ondare kulturala", diosku Yasmin Soudek, organoaren zaharberritze lanetan Sergio del Campo Olaso organogilearekin eta Itziar Larrinaga Musikeneko ikerketa eta berrikuntzako koordinatzailearekin elkarlanean ibili den eibartarrak.

Soudek azaldu digunez, "Melcherren sorkuntzarik onenetakotzat da. Arlo teknologikoan maisulana da, San Andreseko organoak baka-rrik dituen mekanismoak ditu eta



Organoa parrokiako ezaugarrien arabera sortu zuen Hans Mellerrek. JESUS KELLER.

Gipuzkoan dauden beste organo batzuegandik nabarmentzen da, nahiz eta probintzia honetan mundu mailan aipagarriak diren organoak ditugun”.

Piezaz pieza


Ehun urte, oster, asko dira eta denborarekin organoaren egoera kaltetzen joan da. Besteak beste, hauspoek ihesak zituzten eta, hai-zeak ihes egiten zuenez, ezin zitekeen intentsitateari eutsi; larruzko mintz antzeko batzuk oso gastatuta zeuden; eta pedalaren eta teklatuaren loturak hondatuta zeuden. Beraz, San Andres elizako organoaren zaharberritzerako komisioren bultzadaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eibarko Udalaren eta elizaren dirulaguntzarekin, 2021eko ekainean zaharberritze lanak hasi zituzten Del Camporen gidaritzapean.

Zaharberritze-tailerra elizako koroan jarri dute, organoa piezaz pieza zaharberritzen dihardute eta lanak 2023ko martxoan amaitzea aurreikusten dute.

Del Campok dioenez, “zaharberritzeak ikuspuntu kontserbatzailea du, organoa lehen bezala jartzea delako helburua. San Andres elizakoak bere sasoiko organoen ezaugarriak ditu. Sasoi horretan organogileek teklatuen ukimena arintzeko joera zuten eta erregistroak maneiatzeko independentzia gehiago ematen zitzaien”, organogilearen berbetan.

Erakusketa eta bisita gidatuak

Organoaren zaharberritzearen inguruan ‘Organoz blai!’ kultura bertartekaritza proiektu berritzailea jarri da martxan eta, organoaren



Organoaren zaharberritze lanak 2023ko martxoan amaitzea aurreikusten da.

balioa eta herriko kultur ondarea sustatzeko asmoz, erakusketa zabaldu zuten orain dela pare bat aste Eibarko Armagintzaren Museoan. Itziar Larrinaga eta Yasmin Soud izan dira erakusketaren komisarioak.

Bertan, eduki fotografikoa eta ikus-entzunezkoak erakusten dira, baita beste material batzuk ere. Gainera, azaroaren 7an beste fase bat hasiko da erakusketan. Izan ere, Zeramika Eskolako ikasleek erakusketarako propio sor-

tutako lanak aurkeztuko dituzte, eta Yanire Sagredok organoaren zaharberritzeari buruz egindako bideoa emango dute. Aurkezpen saioa 19:00etan hasiko da.

Urriaren 27an erakusketaren bisita gidatua egiteko aukera egongo da 18:00etan; eta bestetik, San Andres parrokiako organoa ikusteko bisita egingo da 24an, 17:30ean. Bisitak egiteko aurretik izena eman behar da, 943708446 telefonora deituta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita.

YASMIN SOUD • Musikologoa eta kultura bitartekaria

“Ikasketak maila profesionalera eramateko aukera eman dit honek”

Eibartarra izanda, Yasmin Soudentzat berezia da San Andres elizako organoaren zaharberritze prozesuan parte hartzea. Bere kasuan, gainera, norabide biko jarduera izan da. Izan ere, batetik, herrian dugun altxor horri bititza berria eman dio; eta bestetik, bere tesia garatu ahal izan du.



Yasmin Souden tesiak San Andres elizako organoa izan du ardatz.

Zergatik erabaki zenuen tesia San Andres elizako organoari buruz egitea?

Musikologoa eta kultura bitartekaria naizenez, Euskadiko ondare kulturala goraiatzeko laguntzen duten proiektuak garatzeko interesa nuen. Horrela, Itziar Larrinagak Sergio del Campo Olaso organogilearekin martxan zuen proiektu batean parte hartzeko gonbitea egin zidan. Ni eibartarra izatea eragingarria zen, bane-kielako proiektu hau gauzatzeko baliabideak zeintzuk ziren. Gainera, proiektu honek nire ikasketak maila profesional batera eramateko aukera ematen zidan. Diziplina arteko proiektu honen helburuetako bat Eibarko ondarearen inguruan hezkuntza sustatzea da, arte diziplina ezberdinen artean komunikazio-sarea sortuz eta, horrela, kolektibo guztien gaitasunak indartuz ondarearen balioak transmititzeko orduan.

Nolako lana egin duzu tesian?

Tesia Musikenek antolatzen duen Musikaren Bitartekaritza, Kudeaketa eta Sustapena izeneko masterraren proiektu bat da. Ikerketa eta akzio jarduera izan da eta parrokiako organoaren zaharberritzea izan du ardatz. Hezkuntza ez formalaren eremuari zuzenduriko hezkuntza programa da, eta Eibarko organoaren eta organeriaren balioa eta ezagutza sustatzea du helburu. Bitartekaritzaren bitartez herritarrak kulturaren balioa hezitzea lortu nahi da eta, era berean, ondare musikalerara gerturatuz kolektibo berriak sortzeko ereduak eskaintzea.

Erakusketan zer saiatu zarete islatzen?

Erakusketaren edukari ikuspegi didaktikoa eta pedagogikoa ematen saiatu gara, komunitateari ondare kulturala babesteko balioak igorri nahian. Hau da, zainketaren inguruko kontzientzia sortzea eta herritarrei ondarearen garrantziaz komunikatzea bere iraunkortasuna ziurtatu asmoz. Ondare kulturalari buruzko ezagutza modu positiboan txertatzen eta ondarearen inguruko ohitura berriak sortzen saiatu gara. Horrela, ondare kulturalarekiko begirada ezberdin bat ematen ahalegindu gara ikuspuntu sortzaile eta dibertigarri batetik. Arte erabilgarriaren ideiatik abiatu gara ondare kulturalarekin erlazionatzeko beste modu batzuk sustatuz.

“Hemen ari da jaiotzen mugimendu feministaren eta trans gizonen arteko aliantza”

ALEX CASTILLO • Guatemalako trans aktibista



Urte hasieran Nalua eta Matraka! Eibarko talde feministek ‘Eragin guneean murgilduz’ prozesua jarri zuten martxan Entreamigos – Lagun Artean elkartearen laguntzarekin, tokiko eta ikuspegi global batetik emakumeek hainbat lurralde eta errealitatean dituzten borroka eta aldarrikapenei buruz hausnartzeko helburuarekin.

Lagun Artean elkarteak Guatemalarekin harreman zuzena duenez, herrialde horretako mugimendu feministaren eta bertako eragileen jarduna ezagutu ahal izango dute eibartarrek. Horrela, barixaku honetan, 18:30ean, Alex Castillorekin solasaldi irekia antolatu dute Arrate Kultur Elkartearen. “Alex trans gizona da, LGTBI Giza Eskubideen Defendatzailea eta Erdialdeko Amerikako trans gizonen lehen kolektiboaren sortzailea (Transformación), besteak beste. Solasaldian Alexen lana eta esperientzia ezagutzeko aukera izango dugu, hausnartzeko eta partekatze espazioa sortuz. Mugimendu feministak ahaldu zuen Alex bere gorputza ezagutzeko eta aurrerapausoak eman zituen trantsizioa egiteko. Trantsizioa egin zuenean, ostera, mugimendu feministak alde batera laga zuen gizona delako, gizon moduan jantzen delako eta fisikoki gizona delako. Orduan, orain Nalua eta Matraka!-rekin egingo duguna da mugimendu feministak nola baztertu zuen hitz egin eta, batez ere, nola egin berriz mugimendu feminista horrekin adiskidetzeko”, esan digute Lagun Artean elkarteak.

Zer moduzkoa dihardu izaten Euskal Herrira egiten diharduzun bisitak?

Oso ona! Oso pozik nago nire esperientzia eta bizipean hemengo jendearekin partekatzeagatik. Agenda bete da daukat eta aktore garrantzitsuekin egoteko aukera izango dut datorren eguaztenean Guatemalara itzuli aurretik.

Hango eta hemengo esperientziak partekatzea eta ezagutzea garrantzitsua da?

Errealitate asko ezagunak dira, baina beste batzuk ez. Erdialdeko Amerikako kolektiboaren sarea koordinatzen dut eta hamar herrialdetako gaiak lantzen ditugu bertan, non euren arteko errealitatea nahiko antzerakoa den. Han estatu biolentzia jasaten dugu, gure dokumentuek bizi ez dugun sexu edo genero bat erakutsi behar dutelako. Hemen badago pribilegio hori eta batzuetan praktikoa eta eroso dela ikusten da. “Generoa aldatu nahi dut eta edozein momentutan egin dezaket”, pentsa dezake norbaitek. Baina horrelako gauzek trans pertsonak egoera zaurgarrian jartzen gaitu eta nortasun-agiri sinple batengatik biolentzia egoerak bizi behar izaten ditugu gure egunerokoan.

Esan digutenez, zure trantsizioa egiteko orduan feminismoak zerikusirik handia izan zuen eta, gero, baztertua sentitu zinen. Nola bizi izan zenuen hori guztia?

Jaio nintzenetik emakume bezala izendatu ninduten, baina inoiz ez naiz emakume sentitu. Biolentzia egoerak



“Guatemalan, badirudi trantsizio fisikoa egiten duzunean mugimendu feminista traizionatzen duzula”

“Aurrera egin beharrean, Giza Eskubideen inguruan atzerakada eman da Guatemalan”

bizi izan nituen eta bidean mugimendu feminista ezagutu nuen. Bertan sartu nintzenean ez nuen borroka bat ere neure egin (ez nintzelako horren parte sentitzen), baina oso adi egoten nintzen hitzaldi guztietan, batez ere autozainketaz, amodio propioaz, autodeterminazioaz, gure burua zalantzan jartzeaz, iraganeko zauriak sendatzeaz eta horrelako gauzetaz berba egiten zenean. 43 urte pasa nituen trans gizona nintzela jakin gabe eta mugimendu feministan sartzean gauzak kuestionatu nituen eta ahaldundu egin nintzen. “Bai, trans gizona naiz eta nire gorputza eztabaidan jartzeko eta sentitzen naizen moduan bizitzeko eskubidea dut aurreiritziak albo batera lagata, eta gizarteak ezarritako roletatik urrun trantsizioa egiteko eskubidea ere badut”, pentsatu nuen. Gure herrialdean behintzat, badirudi trantsizio fisikoa egiten duzunean mugimendu feminista traizionatzen duzula. Batzuk uste dute emakume izateari laga nahi diogula gizon bezala pribilegio gehiago izango ditugulako, eta niri mugimendu feministaren atekari itxi zizkidaten. Orduan, antzeko egoeran dauden trans gizon gehiago daudela ikusi nuen eta trans gizonen inguruan sortutako irudia okerra dela: atseginak garela, eskubide guztiekin, lanpostu batekin, familierekin... Baina, nire kasuan gutxienez, trantsizioa egin nuenean gauza asko galdu nituen. Adibidez, babestu

egingo nauen lege bat. Nortasun agirian horrela agertu arren, ez gaituzte emakume bezala ikusten eta, ondorioz, espazio eta lege askotatik kanpo geratzen gara. Beraz, borroka honetan bakarrik gaudela ikusten dugu. Alde batetik, ez gara ‘gizon’ berbaren barruan sartzen (eta ez dugu nahi); baina, bestetik, ez dugu feminismoarekin elkartasun zubirik eraikitzen.

Gaur egun hainbat erakundetako kide zara. Hasi zaretetik mugimendu feministarekin zubiak eraikitzen edo nolabaiteko lehia dago?

Inoiz ez dut lehiarik ikusi, komunikazioa falta izan dela uste dut. Beraz, berebizikoa da elkartzea eta, trans gizonen aldetik adibidez, gure gorputzen bitartez berba egitea, trans gizonak izan arren, matxismoz eta patriarkatuz beteriko historia dugulako atzean. Aurrez aurre kontaktu nahiko nieke trantsizioa egin ondoren galdu nuen guztia. Besteak beste, osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea, lan-eskubideak, familia-eskubideak, bizitza bete bizitzeko eskubidea... Orain hasi gara mugimendu feministarengana hurbiltzen, eurek ezagutzen ez duten errealitate bati buruz aurrez aurre berba egiten eta adiskidetzera heltzeko zubiak eraikitzen.

Guatemalako gizarteak nola bizi du transexualitatearen gaia?

Guatemalako gizarte oso kontserbadorea eta ika-



Erdialdeko Amerikako trans gizonen zenbait erakunderen kidea da Alex Castillo guatemaldarra.

ragarri biolentoa da. Aurrera egin beharrean, Giza Eskubideen inguruan atzerakada eman da, batez ere zaurgarritasun egoeran dauden taldeei dagokienez (haurtzaroa, gazteria, emakumeak eta LGTBI biztanleria). Elizak eta eskuineko mugimenduek botere handia dute, eta gure aurka egiten duten legeak bultzatzen dituzten talde indartsuak sortu dituzte. Besteak beste, Bizitzaren eta Familiaren Babeserako Legea onartu zuten martxoan eta oso lege atzerakoia eta biolentoa da, abortuaren eta familia tradizionalaren aldekoa (aita, ama eta seme-alaba perfektuak). Horren bitartez osasungintzako profesionalak kondenatu daitezke eta heterosexualitatea lege bihurtzen du. Orduan, martxoaren 8an, Guatemalako presidentek eskuineko mugimenduak gonbidatu zituen eta Guatemala bizitzaren eta familiaren hiriburu izendatu zuen. Kolpe handia izan zen guretzat, baina gizarte mugimenduen eta nazioarteko presioaren bitartez legea atzera botatzea lortu genuen. Hala ere, ezkutuan dagoen legea da, gure aurka egiten du eta edozein momentutan atera dezakete berriz. Orain, haurrak “babesteko” lege bat jarri nahi dute, euren esanetan, eta bertan genero identitatearen nahasmenduak egiten da berba. Horrela, trans pertsonak patologizatzen gaituzte eta hori oso biolentoa da, Munduko Osasun Erakundeak

orain dela zenbait urte esan zuelako transexualitatea ez zela patologia bat. Guatemalan horrekin tematuta daudenez, normalizatu egiten da LGTBIQ+ pertsonen aurkako biolentzia eta, adibidez, urte hasieratik irailera arte kolektiboko 25 lagun hil dituzte herrialdean (hori guk dakigula, jende ezaguna zelako, baina zifra handiagoa izan daiteke).

Euskal Herrira egin duzun bisitatik zer espero duzu Guatemalara eramatea?

Lehenik eta behin, niretzat garrantzitsua da hemengo erakundeek eta elkarteek esateko duguna entzutea. Batzuetan pentsatzen dugu Guatemalako mugimenduak alkandora hertsagarri baten barruan gaudela, eta horrek ez gaitu aurrera egiten lagatzen. Orduan, munduari gure errealitatea erakutsi nahi diogu. Bigarrenik, hemen ari da jaiotzen feminismoaren eta trans gizonen arteko aliantza. Pozik nago zubi hau gurea ez den beste kontinente batetik eraikitzen hasi delako eta ziur nago elkarrekin zerbait egiteko gai izango garela. Hirugarrenik, jende berria, beste legedia batzuk, espazioak eta gure kolektiboarentzat askoz ere atseginagoa den gizarte bat ezagutzeko aukera izan dut eta oso pozgarria da niretzat, aldaketarako esperantza ematen didalako, nahiz eta gogor borrokatzen jarraitu behar dugun.

Eibarrek azaroaren 17an egingo du Akziodunen Ohiko Batzar Orokorra

Jon Ander Ulazia SD Eibarreko kontseilari delegatuak aurreko astean eskainitako prentsaurrekoan, Batzar Orokor horren berri emateaz gain, bertako nondik-norakoak azaldu zituen eta, baita, 2022ko urteko kontuak eta 2023ko aurrekontua aztertu ere, Kirol Hiria-aren egoera eguneratzeaz aparte. Ulaziak aipatu zuenez, akziodunek telematikoki bozkatu ahal izango dute azaroaren 7tik 13ra, biak barne, klubaren webgunean. Edozein zalantza argitzeko hitzordua akziodunak@sdeibar.com helbide elektronikoa edo Orsaixan espazioan eskatu ahal izango da.

Amaia Gorostiza presidentek hasierako txostena egin ondoren, bigarren puntuan kontseilarien izendapenari buruz hitz egingo da. Administrazio Kontseilua 2017an aukeratu zen, ezohiko batzorde batean, eta agintaldia ekainean amaitu zenez, Administrazio Kontseilu berria izendatu behar da. Ildo horretan, Ulaziak zehaztu zuenez "Kontseiluaren bozketa individual-



Jon Ander Ulaziak Eibar FT-ren hainbat kontu argitu zituen aurrekoan.

ki egingo da". Agerraldian bozkatu beharreko kontuak ere azaldu zituen. "Ustiapenaren emaitza milioi bat lauhun mila eurokoa da. Merkaturaren beherakadaren ondorioz, inbertsioen balioa jaitxi egin da eta, beraz, kontuen emaitzak hiru milioi eta erdiko galerak izan ditu. Hala ere, ez da benetako galera, gure inbertsioen beherapena baizik, etorkizunean suspertu egingo direnak. Eta ondare-egoera egonkorra da, ia 100 milioi euroko aktiboarekin", azpimarratu zuenez.

Kontseilari delegatuak denboraldi honetako aurrekontuaz ere hitz egin zuen. "Aurkeztuko dugun aurrekontuak lehen mailara itzultzeko asmoarekin azalduko

dugun hiru urterako plana islatzen du. Plan horretan, kirol-inbertsioa maximizatzen da, eta 11,7 milioi euroko galerak ditu. Hala ere, lau hilabeteko ekitaldiaren ondoren, galerak txikiagoak izango dira, 10 milioitik beherakoak". Areitioko Kirol Hiriko obren bilakaeraren inguruan, "bigarren eta hirugarren faseei ekiteko moduan gaude, hau da, Kirol Hirirako sarbideei ekiteko moduan, eta hirugarren fasea eraikinak eraikitzen hastea izango da", nabarmendu zuenez. Ulaziak ez zuen ahaztu abonatuak eskerrak ematea, "6.000 bazkide-tik gora gaude, kopuru historikoa. Denok taldearekin dugun ilusioa adierazten du horrek".



Herriko pilotariak bisitari hainbat herritan

Astelena frontoiko lanekin jarraitzen duten bitartean hori dagokie Klub Deportiboko pilotariei. Mendaroko frontoia atzo palisten partiduak hartu zituen eta gaur, 19:15ean hasita, Gipuzkoako txapelketaren barruan jokatu den jaialdian, honako hauek jokatu dira: banaka, Alex del Rey vs Beristain (Azpeitia); kadeteetan, Basaras-Araolaza

vs Zestoako bikotea; jubeniletan, Ibarra-Caramanzana vs Lazkaoko bikotea; eta seniorretan, Narbaiza-Agirresarobe vs Beasaingo bikotea. Sorraluzen, bestalde, gaur kadeteetan Urkiaga-Gisasola vs Lazkaoko bikotea jokatu da. Eta eibartarrak izango dira baita Zestean (Amillategi), Zaldibian (Gil) eta Zumarragan ere (Varona), guztiek gaur jokatzeko.



Manex Dominguez gogoratuko dute Urbatekoek 28an

Ekainaren 29an istripuz hil zen Urbat-Urko tronik waterpolo taldeko Manex Dominguez jokalaria-ohia gogoratuko dute Eibarko taldeak Lauroren aurka jokatu beharreko partiduaren aurretik. Norgehiagoka hori datorren asteko barixakuan, hilak 28, izango da Orbea kiroldegian, 21:40an hasita. Manexen familiakoak izango dira bertan eta klubak "berarekin eta familiakoekin harremanak izan zituztenak" gonbidatzen dituzte ekitaldia.



Eibar FT-k 1. Maila Federazioko lidergoa eskuratu du Athletic B-ri irabazita

Yerai Martinek prestatzen duen taldeak 3-1 irabazi zion Athletic-eko bigarren taldeari Unben eta, modu horretan, bakarrik geratu da multzoko sailkapenaren lidergoan. Andrea Alvarezek aurretik jarri zuen talde armagina 14. minutuan eta bigarrenengoaren 59. ean Ane Camposek bigarrena lortu zuen. Handik gutxira bilbotarrek alde murriztu bazuten ere, denbora ia beteta zegoela Laura Caminok hi-

rugarren gola sartu zuen. Domekan ligaren amaierarako garrantzitsua izan daitekeen partidua izango dute eibartarrek Iruñean, aurreko denboraldietan igotzetik gertu izan den Osasuna zain izango dutelako Tajonarren arratsaldeko 16:00etan hasiko den partiduan. Partidurik galdu gabe, une honetan Eibar FT-k bi puntu ateratzen dizkio Bartzelona B-ri eta hiru aipatutako Osasunari eta Deportivori.

Asola Berriko bazkideek euren eguna ospatu zuten hilaren 12an

1962. urtean sortutako elkarteak 60 urte bete zituen Pilarika egunean, eta bertako bazkideek ondo aprobetxatu zuten eguna hiru-txirlorako grinaren bueltan orain artekoa bizi izandakoa ospatzeko. Eguerdiko 12:00etan ekin zioten bola-jokari eta, ohiko jai-egunetako goizeko tiraldiaren ondoren, 14:30ean anai-arteko bazkaria egin zuten. Jarraian, bazkalostean, aurtengo



Asola Berriko bazkideen talde-argazkiak inguruko "kuri osoen" arreta piztu zuten.

"Udaberri saria" txapelketako sariak banatu eta gero, bikoteka egin duten txapelketa bereziaren ordua iritsi zen. Giro ezinhobeaz

gozatzeko aukera izan zuten Asola Berrikoek egun osoan, hamarkadaz hamarkada hiru-txirlo joko zaharri bizirik eusten jarraitzeko.

Ipurua gimnasia erritmikoko kluba indartsu denboraldi hasieran

Datozen asteetan agenda estua bete beharko du Eibarko klubak orain arte jokatuak torneoean erakutsitako maila bikainari eusteko ahaleginean. June Araujo, Naroa Alonso, Elene Ramirez, Nahia San Martin eta Elene Lazpitak osatutako boskoteak Gipuzkoako txapela jantzi berri du eta Euskadikoan txapeldunorde izan da, Gasteiz Hiria torneoan ere urrea eskuratuta. Tapizean maila bikaina erakutsi zuten ere Ane San Martinek jubencil mailako onena izanda Gipuzkoako Federazioak antolatutako kontrolean, eta Haizeder Arguiz, Maialen Apraiz eta Emile Zamakolak (lehen, bigarren eta laugarren) kontrol bereko oinarritzko kadete mailako lehian.

Asteburu honetan jubencil mailako taldea, oinarritzko banakakoa eta banakako absolutua Gernikara joango dira bihar bertako Jai Alai pilotalekuan jokatu den Xixili txapelketan parte hartzeko, eta do-



Jubeniletako oinarri taldea eta kadete eta jubeniletako indibidualak.

mekan Arabako El Burgon izango dute hitzordua, Bagare klubak antolatzen duen txapelketan.

Talde federatuak azaroko Taldekako Txapelketa prestatzen dihardu, maila indibidualean geroago jokatu diren Kopako bi deialdietan federatu guztiak sailkatzeko helbu-

ruarekin. Era berean, eskolarteko eta amateur mailetako 60 gimnastetik gora probintziako eta Euskadiko federazioek antolatzen dutuzten txapelketetan hartuko dute parte. Ahaztu barik azaroaren 26an Ipurua kiroldegian jokatu den San Andres Torneoaren XXII. edizioa.

Guara mendilerroa lau eguneko irteera antolatu dute Deporren

Gutxira dugun zubia aprobetxatuz, urriaren 29tik azaroaren 1era arteko irteera antolatu du Klub Deportivo boko mendi batzordeak Elgoibarko Morkaiko taldekoekin batera. Irteera horrek Huescan dagoen Guara mendilerroa izango du helburu eta

honako mendi gain hauek egingo dituzte izena ematen dutenek: lehen egunean 1.928 metroko Peña Canciás, bigarrenetan 1.348ko Peña Surta (Santa Marina basiliza bisitatuz), hirugarrenetan 1.871eko Cabezo de Guara eta 1.938ko Tozal de

Cubilás eta laugarrenetan 1.121eko Peña de Aman. Alojamiento Colungon hartuko dute eta prezioak honako hauek dira: 240 euro bazkideentzat eta 260 bazkide ez direnentzat. Prezioaren barne sartzen dira bidaia, gosari eta afariak eta alojamiento; eguneko bazkaria edo jatekoa, bestalde, bakoitzaren kontu geratzen da. Ordainketa egiteko kontua hau da: ES85 3035 0078 8407 8000 5897.

Bestalde, aurreko zapatuan 20 mendizalaren taldea bildu zen Deba Bailararen Itzuliko 9. etapa egiteko. "Egun zoragarri batean" Udanatik Elosuaraino joan ziren, tartean 951 metroko Gorostiaga eginez.



“Antzerkia ez da erantzunak emateko lekua, baizik eta galderak egiteko tokia”

MAIALEN BELAUSTEGI • *Hondamendia* antzezlan



Axut! eta Artedrama antzerki konpainiek ‘Hondamendia’ sortu dute, 2019an Zaldibarko zabortegian gertatutakoa eta COVID-19aren pandemia ardatz hartzen dituen antzezlan. Lana urriaren 13an estreinatuta zuten Luhuson eta azaroaren 1ean helduko da gura, Coliseo antzokira.

Harkaitz Canok idatzi du gidioa eta Ximun Fuchs da zuzendaria. Atzean, ostera, 25 laguneko taldea dago “guztiak torloju batek bezala funtzionatzeko”, esan digu Maialen Belaustegi eibartarrak. Bera arduratu da ikuskizunaren ikus-entzunezkoak lantzeaz eta biziki maitemindu da ‘Hondamendia’ sortzeko prozesuan bizitakoaz. Orain biraren txanda iritsi da eta gogotsu ekin dio bide berriari.

Nolako istorioa kontatzen du ‘Hondamendia’ antzezlanak?

Zaldibarko zabortegiaren gertaera eta COVID-19aren pandemia dira lanaren abiapuntuak, baina hortik fikzio bat sortzen da. Hala ere, gertutik bizi izan ditugun gertaerak direnez, istorioa fikzionatu egiten den arren, gaiarekin erraz konektatzen dugu. Lan-kideek dioten bezala, “gu baino handiagoak diren gauza batzuk kontatzen ditugu”. Beraz, helburua ez da gertatu zena zehatz mehatz kontatzea, baizik eta hortik abiatuz lerro eta narratiba batzuk eraikitzea gaia eramangarriago egiteko. Antzerkia ez da erantzunak emateko lekua, baizik eta galderak egiteko tokia. Gainera, gertakari horiek aitzakia hartuta, gai eta

plano pila bat zeharkatzen dira: zaintza, bakardadea, teknologiarekin harremana, afektuak...

Gaiak potoloak dira eta berriki gertatutakoak. Arreta berezia izan duzue gauzak nola kontatu erabakitzeko?

Errespetu eta maitasun handiz landutako prozesua izan da. Zaldibarko zabortegiaren gertakizunaren kasuan pertsona eta testigantza batzuk daude, norzuk modu zuzenago eta gogorrago batean bizi duten gertaera bakoitza. Beraz, arretaz eta begirunez landu da gaia. Bestetik, pandemiari dagokionez, bakoitzak errealitate bat bizi du eta errealitate batzuk gogorragoak izan dira. Gainera, Eibarren modu berezian bizi izan dugu hau guztia. Zaldibarkoa oso hurbiletik bizi izan dugu, pandemia aurretik etxean sartu gintuzten airean zegoen kutsaduraren beldurrez eta orduan hasi zen gero pandemian luzatuko zen etxealdia.

13an estreinatuta zuten lana. Nolako harrera izan du?

Orokorrean harrera ona izan du. Antzezlanean gauza asko gertatzen dira, oso dinamikoa da, pertsonaia asko daude, bakoitzak leku bat erakusten du, gertaeren begirada asko daude... Beraz, esan didatenez, ikuskizuna ondo jarraitzen da, baina bigarren aldiz ikustea eskergarria izan daiteke, lanari zukua ateratzeko. Izan



Maialen Belaustegi eibartarra arduratu da 'Hondamendia' antzezlanaren ikus-entzunezkoak lantzeaz. EKHI BELAR/AINHOARESANO



ere, xehetasun asko dituen antzezlan da eta elementu, diziplina eta baliabide asko batzen dira bertan.

Nolako lana egin duzu antzezlanerako?

Antzezlanaren bideoak landu ditut. Demaseko zortea izan dut, ia-ia prozesuaren hasieratik ibili naizelako lanean Ximun Fuchs zuzendariarekin. Berak ulertzen zuen irudia antzezlanaren egiturazko elementua zela. Beraz, Harkaitz Canok idatzitako testua eta irudia elkarrekin joan dira eraldatzen. Lan honekin antzerkia barrutik ezagutzeko zortea izan dut. Gidoi batetik pieza bat nola sortu den ikusi dut eta pieza horretan parte hartzen duten elementu guztiekin elkarbizitzeko aukera izan dut. Argi-diseinua, eszenografia, jantziak, soinu-diseinua... Baliabide asko egon dira eta askotan ikusezina den talde batek eusten zion guzti horri, ekoizpen taldeak. Orduan, bideoa ez da piezaren elementu solte bat, dena dago lotuta eta beste elementu batzuk zeharkatzen ditu. Bestetik, arlo teknikoari dagokionez, demaseko erronka izan da heldu garen lekura iristea. Hainbat pantaila eta proiektore erabiltzen ditugu, zuzeneko irudia ema-

“Zaldibarko zabortegeiaren gertakizuna eta pandemia aitzakia hartuta, gai asko zeharkatzen dira: zaintza, bakardadea, teknologiarekin harremana...”

ten eta manipulatu dugu, pertsonaia baten papera egiten dut... Erronka handia izan da, baina oparia era berean. Oso babestuta sentitu naiz, sortzeko konfiantza handia eman didate eta horri esker lortu dut hau guztia sortzea.

Orain, egindakoa gizarteratzeko ordua iritsi zaizue. Gogotsu?

Arlo hau berria da niretzat, inoiz ez dut horrelako birarrik egin. Emanaldi asko lotu ditugu, eta Axut! eta Artedramak sortutako euskarazko sorkuntza denez, Euskal Herri guztian zehar ibiliko gara.




“Ekografiak” disko berria atera du Lorelei taldeak

Asier Serranok eta Mikel Gorosabelek 1990eko hamarkadan sortutako musika taldea bueltan da. Hogeita bi urteren ostean, irakurketa “unibertsala” duen hamar kantuko lan “oso pertsonala” kaleratu dute eibartarrek. Taldea desegin eta gero, 2020an elkartu zen bikotea Antxon Sarasua eta Loiola Maderarekin batera, antzokietara itzultzea erabakitzeke. Elkar estudioan grabatu dute lan berria eta azala Nagore Martinek egin du.



Aita Madinaren omenezko kontzerturako sarrerak salgai

Pedro Palacinek zuzentzen duen Andres de Eiguren Orkestrak Aita Madinaren “Concerto for harp and orchestra” (harpa eta orkestrarako kontzertua) estreinatuko du azaroaren 5ean, 19:00etan, Coliseon. Horrela omendu nahi dute konpositorea, bere heriotzaren 50 urteurrena dela eta. Obra Pedro Palacin zuzendariak orkestratu du, eta Claudia Besné bakarlariak berrikusi du harpa zatia. Mozarten “K 550 Sinfoniak” biribilduko du kontzertua (lehen bertsioa). Sarrerak 10 euro balio du eta aurretik eros daiteke Kutxabank-en edo, bestela, Coliseoko leihatilan, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era.



Euskaraldian izena emateko epea zabalik dago

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo den Euskaraldian Belarriprest edo Ahobizi moduan parte hartu nahi duen herritarrek on-line izena emateko, www.euskaraldia.eus helbidean sartuta egin dezake. Eta, izen-ematea aurrez aurre egiteko, honako egoitza hauetako batera jo dezake: ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu, 11), Udal Euskaltegia (Portalea, 2. solairua), AEK euskaltegia (Sostoatarren, 1) edo Depor taberna (Toribio Etxebarria kalean). Gune horietan Euskaraldia hasi bitartean izena-eman eta txapa jasotzeko aukera egongo da. Horrez gain, mahaiak jarriko dituzte herriko toki ezberdinetan: azaroaren 3an Amañako pasealekuan, 18:00etatik 20:00etara; azaroaren 12an, Erreal Plazan eta Untzagan, 18:00etatik 20:00etara; eta, azaroaren 17an, Urkizuko parkean, 18:00etatik 19:30era. Mahai horietan, izena emateaz gain, etxetako leiho eta balkoiak apaintzeko banderak ipiniko dituzte salgai (5 euro).

Plazara Dantzara urriaren 28an



Kezka dantza taldeak eta Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Plazara Dantzara dantzaldiak egiten hasiko dira, datorren barixakutik (urriak 28) hasita. Formatu txikiko dantzaldiak aurreikusi dituzte (musikari bakarrek edo bikotearekin) eta, diotenez, “xarma berezikoak izan ohi dira halakoak”. Erreal Plazan egingo da datorren asteko dantzaldia (lotuan, soltean, sokan, jauziak, inguru-txoak, kontradantzak...), 19:00etan, Iker Allurren musikarekin eta Patxi Monteroren laguntzarekin.



Barre egiteko moduko antzezlan Coliseon

Pentación taldearen eskutik, bihar 20:30ean “El agua-fiestas” komediarekin barre egiteko aparteko aukera egongo da Coliseo antzokian. Josema Yuste aktore ezagunaren eskutik dator komedia arrakastatsu honen bertsio berria, Marcelo Casasen zuzendaritzapean. Yusterekin batera Santiago Urrialde, Maribel Lara, Vicente Renovell, Arturo Venegas eta Kiko Ortega arituko dira oholztan. Sarrerak 15 euro balio du.



Debarreneko Orfeoia eta Artisau Azoka domekan Ipuruako Merkatu Plazan

Domekarako bi ekitaldi antolatu dituzte Ipuruako Merkatu Plazan. Eguerdian, 12:30ean, kontzertua emango du Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen Debarreneko Orfeoia. Eta arratsaldean, 16:30etik 21:00etara, tokiko artisautza azoka egingo da. Bertan 12 artisau inguru bilduko dira, gehienak eibartarrak eta bakar batzuk ingurukoak. Era askotako produktuak erakutsiko dituzte: ehun-gaiak, bisuteria eta osagarriak, makramea, kosmetika naturala, belarritakoak, diseinuzko arropa, larruarekin eta metalarekin egindako produktuak, marrazki artistikoak...



Kulturgintzari buruzko mahai-ingurua bihar Kultur

Arrate Kultur Elkartearen sorreraren 70. urteurrena ospatzeko, bihar 11:00etan “Kulturgintza Eibarren. Egoera eta erronkak” mahai-inguru parte-hartzailea egingo da elkartearen lokaletan, “Eibarko kulturgintzaren egoera eta erronken inguruan elkarrekin hausnartzen hasteko”. Asmo horrekin, kulturgintzako hainbat eragile gonbidatu dituzte: Maider Aranberri (...eta kitto! Euskara Elkarte), Maite Arroitauregi musika sortzailea, Oier Araolaza dantzari, kazetari eta antropologoa, Jose Luis Gonzalez “Poxpolo” UdalekoKultura Saileko zuzendari teknikoa eta Jaixak Herrixak Herrixandako. Ondoren, 13:30ean, sortzaileei omenaldia egingo zaie eta 14:30ean bazkaria hasiko da (txartelak Kultu tabernan salgai). Amaitzeko, Hemen taldearekin bazkaloste musikatua izango da (ekimen irekia).

Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseon. Andoni Vazquezek zuzenduta, Ponteareas (R. Soutollo), La Gran Vía (Chueca y Valverde), Peer Gynt (E. Grieg), African Symphony (Van McCoy) eta Thank You For The Music (B. Ulvaeus) joko dituzte eta sarrera doan da.



Frantsesa praktikatzeko saioak astero liburutegian

Juan San Martin liburutegiak frantsesa praktikatzeko bilerak hartuko ditu astero, 19:00etatik 20:30era, Michel Rocafortek dinamizatuta. Bertan parte hartu ahal izateko, gutxieneko elkarrizketa-maila B1 izan behar da eta urriaren 30a baino lehen izena eman.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5		9		1			
2					8	9	
	3	1	9				
		7		3		2	6
9	7		2	4			
				2	8	3	
		4	1				7
			5		6		1

I	B	R	E	R	E	R	E	R	E
L	E	R	K	E	L	I	R	E	R
O	C	E	R	E	P	H	L	O	I
C	E	L	P	R	C	O	L	O	
F	G	L	I	R	S	O	N	O	
G	Z	O	R	E	R	O	I	V	
C	O	R	P	H	E	L	L		
C	L	E	R	E	L	O	P	Z	
Z	A	R	E	L	H	O	R	E	

soluzioa


**S
U
D
O
K
U**

S	A	T	E	T	N	A	T	E	
R	E	R	E	L	O	P	Z		
H	E	R	E	P	R	O	D	O	I
L	E	R	E	P	R	O	D	O	I
O	P	Z	O	R	E	R	O		
E	C	O	P	R	O	D	O		
R	E	L	H	O	R	E			
P	R	E	P	R	O	D	O		
P	R	E	P	R	O	D	O		


soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		7				3	4
8				9			
	4	5	8				7
				4	1		5
		9				4	
4			3	2			
	3				7	9	8
				1			3
	7	2				6	



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A
K**



Urriak 21/27

BARIXAKUA 21

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Torrekuako parkea.

ZINE-FORUMA

18:30 "Joy" (David O. Russell). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Doan. Portalea.



JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:00 Hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Antton Melendezen eskutik. Klub Deportiboa.

ZAPATUA 22

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

08:15 Perretxikoak biltzeko mendi irteera. Ego-Gain.
16:00 Perretxikoak aukeratu eta sailkatzea. Klub Deportiboa.

GAZTA AZOKA


10:00/14:00 Debabarreneko Gazta Azoka. Dastaketa eta erakustaldiak.
11:00 eta 12:30 Gaztagintza tailerrak. Musika Eskolako trikitalariak eta Lekim Animazioak. Untzaga.

IRTEERA ETA JOLASAK

11:00 Haurrentzako (8-12 urte) irteera, Arratera, Eibar-Ermuko Gazteen Gurutze Gorriarekin.

ARRATE KULTUR ELKARTEA

11:00 "Kulturgintza Eibarren. Egoera eta erronkak" mahai-ingurua.
13:30 Omenaldia, sortzailleekin.
14:30 Bazkaria.
17:00 Bazkaloste musikatua, Hemen taldearekin (ekimen irekia). Arrate Kultur Elkartea.



ANTZERKIA

20:30 "El aguafiestas" (Pentación). 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna deskontuarekin). Coliseo.



DOMEKA 23

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:30/14:00 Perretxiko erakusketa eta dastaketa. Toribio Etxebarria.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.



MUSIKA

12:30 Debabarreneko Orfeoia. Ipuruako Merkatu Plaza
AZOKA
16:30/21:00 Tokiko artisautza azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.



EGUENA 27

HITZALDIA

10:00/12:00 "Espresionismo abstraktua", Ricardo Aldamarekin. Ikasten-ek antolatuta, sarrera librea. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaitzentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Urriaren 23ra arte:

- **PILAR SOBERON-en "Itzalpean - Espectro de oscuridad"**. (Portalea).
- **ARRATEKO KULTUR ELKARTEKO bazkideen erakusketa kolektiboa**. (Portalea).

Urriaren 31ra arte:

- **"HABLAR VENECIA" argazki erakusketa kolektiboa**. (Depor taberna).
- **IRATI AYARZaren "Gure familia eta beste istorio batzuk"**. (Portalea taberna).

Abenduaren 11ra arte:

- **"EIBAR ORGANOZ BLAI"**. (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

ANTZERKIA
21ean (barixakua) / 19:00 Herriko Antzokia
"Sexberdinak", Tanttaka konpainiaren eskutik.

SORALUZE

ANTZERKIA
21ean (barixakua) / 20:00 Herri Antzokia
"Altsasu", La Dramática Errante konpainiarekin.

DEBA

KOLORE ANITZ EGUNA
22an (zapatua)
Goizez: haur-jolasak. Gaeuz: musika-emanaldiak gazteentzako.
TXANGOIA
22an (zapatua) / 10:00 Debako itsasadarraren eremu berdeak ezagutzen.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **22an:** 22:30
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 20:30

“Los renglones torcidos...”

Zuzendaria: Oriol Paulo



2 ARETOA

- **22an:** 19:45, 22:30
- **23an:** 20:00
- **24an:** 20:30

“La chica salvaje”

Zuzendaria: Olivia Newman



2 ARETOA

- **22an:** 17:00
- **23an:** 17:00

“Izurde mutikoa”

Zuzendaria: M. Kheyrandish



ANTZOKIA

- **22an:** 17:00, 19:45 (1 aretoa)
- **23an:** 17:00, 20:00
- **24an:** 20:30

“Lilo, mi amigo cocodrilo”

Zuzendaria: Josh Gordon




• **tartak**
• **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEIBORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29 *enkarguak etxera*

IREKIERA EKITALDIA
JABE BERRIEKIN
BOLERA taberna
KANTABRIA ETXEA

urriak 22 / zapatua / 18:00
pintxoak, canapeak, hestebeteak... izango ditugu
ZUEN ZAIN GAITUZUE!

Asteburuko menuak eta erretegia




FUNEUSKADI
SOLAS AGENZIA

FUNEARIA MUGICA
FOTOKOPIA



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
Eibariko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Elgoibar: Xaifion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leiza · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ION!** Astelehenian gure txiki haundixak 7 urte beteko ditte! Patxo potolo pillua famelixa guztiaren partez! Lur, Maikel, Maule...



Zorionak, **MIKEL**, astelehenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **PAULA!!** Etxeko txikitxua haundixa egitten ari jaku. Honezkero 6 urte, printzesa!! Askoi maite zaittugu. Aitta, ama eta Lucia.



Zorionak, **MIREN**, eguaztenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IAN!** Astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta!! Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, astelehenian 20 urte beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu! Musu bat etxekuen partez.



Zorionak, **JON!** Bixar 2 urte beteko dozuzelako. Musu erraldoi pillua etxeko guztien partez.



Zorionak, **DANEL!!!** Atzo 2 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Julen eta Markelen partez.



Zorionak, **MANEX!** Gure foballarixak 8 urte betetzen ditte gaur! Besarkada bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **ANE**, hillaren 26xan 5 urte beteko dozuz-eta. Zure famelixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak, **DANEL** eta **LUKEN!!** Hillaren 20xan eta 23an 2 eta 7 urte beteko dozuez-eta. Askoi maite zaittuegu. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jareren partez.



Zorionak, **TELMO** eta **MARINA**, zuen famelixakuen partez. Musu handi bat.



Zorionak, **JULE** (2 urte, hillaren 13an eginda) eta **EIDER** (2 beteko dozuz be hillaren 29xan). Lehengusiñak eta etxeko txikixak izanda, famelixa guztiaren partez.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Buhardilla saltzen da Bidebarrieta 12an. Trasteak sartzeko egokia. 676102214.

1.2. Errentan

- Ama-alabek 2 logeteko etxea hartuko lukete alokairuan Jar-diñeta inguruan. 627777468.
- 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 664822392..

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko: garbitu, lagundu eta errekauek egiteko. 685185462.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 688723822.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarak egiteko. Orduka. 695368959.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 674828085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 658398474.
- Emakume euskalduna eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Esperientzia dendari eta garbitzaile bezala. 649021380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 679946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 631932322.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. HH eta LH ikasketekin. 671459654.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarak egiteko. 624869718.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Esperientziarekin. 632029884.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Externa. 643848513.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Disponibilitate guztiarekin. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 622233171.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Disponibilitate guztiarekin. 602012075..

4.2. Langile bila

- Odontologoa behar da klinika batean, lehenbailehen hasteko. Bidali curriculum: hortz-klinika.06@gmail.com
- Elgoibarko mekanizazio-entresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Esperientziarekin. Lan-kontratu mugagabea. email: angel@swisslan.es
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika

- klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Edozein arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Panyak saltzen dira. 679824081.
- Bateria elektronikoa salgai. Millenium MPS-400. 658748823.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Kremaillerdun sudadera beltz handia aurkitu zen Sargardo Egunean. 943200918.



ARRAZOIA
N° 83



Jasangarriagoak eta aktiboagoak izan behar gara



Beti daude zure ilusioekin jarraitzeko arrazoiak

Etxebizitzak Erreal Plazaren ondoan

Gimnasioa | Gourmet Aretoa | Garaje eta Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

**IKASI teknika ezberdinekin objektuak
KONPONTZEN eta materialei
BESTE BIZITZA BAT EMATEN.**

**"BERRERABILI ETA BERRASMATU"
TAILERRAK**

NOLA LAGINDU BEZAKERU
SORTZEN DITUGUN
HONDAKINAK
MURRIZTEN?

Plaza mugatuak



lagarremugatuak.net
Tel: 943 70 84 00

IZEN-EMATEAK

2. Txandako tailerrak:
urriak 24 – azaroak 6

TAILERRAK:

Azaroak 17: Bizitza bizikletaz!
Mantenimendu kit aurreratuak

Azaroak 19, 26: Biziberritu zure
aitzari eta dekorazio objektuak

**Azaroak 22, 29 eta Abenduak
5, 13:** Etxeko oinarizko
konponketak: elektrizitatea
eta elektronika

Azaroak 24: Betiko sukaldaritza.
Aprobetxamenduko errezetak

Azaroak 25: 3R esperimentuak

Abenduak 3: Personalizatu
etxeko paperezko poltsak

Abenduak 10: Laruarekin
jolasean: osagari
eta apaingarriak



udalserbia 2030
udalaren jasangarritasunaren
2030. urterako planaren eremua



DebeBarrena
BERRERABILI ETXEA



Ekimuzko



FARMACOOK



HARIXAN





Erreserbatu gure
Tripontziak
menua!

2022 **DEBABARRENA**

Azaroaren **4tik**
27ra



EIBAR
Bidebarrieta 27. behea
943 84 35 05
barazagourmet.com

Bidebarriko baratzetik sailaturuta
fole gure konmetzaren gainean

Alicorta bakailaia txupurra,
kalabasa eta puntalaita risottoarekin

Briozako rock-and-rolla, tenyaki
masajoa, zapintxoak tipulaz
eta mikromoztun
nahasketaz betea

Mendaroko txokolatetz egindako moussé
birra biskotik fruitu konpolarekin



ERMUA
Erdikale 19
943 54 35 97
Mondaketa Jantokia

Cherry tomate, aguakate eta
micromoztun antzaldia,
pipar oxpin-olioxekin

Alicorta bakailaia-limbela,
gure kostaldetik txangurno-piñitarekin

Euskaltzerrri apiztuna web-onen
egindako baratzekin

Goata-tarta krematua Mendaroko
txokolatarekin



ITZIAR - DEBA
Itziar auzoa 2
943 19 90 35
www.hotelkanala.com

Etaneko aperitifoa

Amin- eta itxasari oopa Kanala erara

Bakailaia-takea parrutaldia-aperitifoa
eta baratzari konfektuekin

Euskaltzerrri sailtekin labean
temperatura txikian erreta

Mendaroko txokolata zuri eta beltzako
erri-ortza



MUTRIKU
Laranga auzoa 1 g.
943 60 32 42
www.pitxua.es

Bakailaia-brandaterekin egindako fofo

Ganbol antzaldia, fruitu gorri egindako
ogari-olioxekin

Begi haundia pamlan bere tirtan

Txerri-apiztuna Porto sailtan
baratz-ohi gainean

Mendaroko 3 txokolatetzako tarta



Eragutu Debabarrenako zapareak!

Elizkerak txakurra duen bitartean,
entzaburutan zator erabiltzeko produktua
rele egitan dion itxasari, eta roka,
dantabara eta.

Doan

IZENA EMATEKO
943 03 03 12

Aur-Ordea: 09:00-19:00
turismoa@debabarrena.es
Pazak agortu eta

AZARDAK 5. larazketa

Agintzari 21, 20850 Mendaro, Gipuzkoa
Chocolates de Mendaro 11:00-12:30
Txokolatetzaren auzoa, 100 urte elizkeri erreta baratz egitea

AZARDAK 12. larazketa

Olara Auzoa, 20850 Mutriku, Gipuzkoa
Golanetza Garrantzogia 11:00-12:30
Eragutu haundia Antzeri Garrantzua antzerkialdi

AZARDAK 19. larazketa

San Nikolas Plaza 1, 20870 Leiza, Gipuzkoa
Lasterka Tala sailera 11:00-12:30
Itziar txakur Lasterka orain egitea

AZARDAK 27. igandea

Ardan Auzoa, 20870 Elgoibar, Gipuzkoa
Liragarri Sagartekina 11:00-12:30
Eragutu egonek ezabaturaz itxas sailera gutxiak



SORALUZE
Txurruka Auzoa 11
943 35 15 81
www.txurruka.es

Egindako antzaldia opila,
ahuntz-garata, urdailar
eta adu olio-olioxekin

Legatza plentzan txupurra egindako
txakurro baratzekin

Euskaltzerrri urdai eta sailera zofetua
Pedro Ximenezen sailarekin

Mendaroko 3 txokolatetzako gure postrea

Menua 32€
ICC Barra



Jantokia guztiztan
botta bar sakarari

Ezagutza: Txakurra eta
Antzeri Txakurra indoa
Uta eta txakur txakur

#Tripontziak
#Debabarrena

www.debabarrenaturismo.com

